



IKASTETXEA	AIXERROTA BHI	KODEA	015109
Arloa/ Irakasgaia	FILOSOFIAREN HISTORIA	Zikloa / Maila	DBHO 2
Irakasleak	Alfredo Olarra Lurdes Villar Iraide Garitaonandia	Ikasturtea	2015~16

HELBURUAK	EBALUAZIO - IRIZPIDEAK
<p>1. Testuetan agertzen diren arazo filosofikoak identifikatzea, horiek analizatuz eta baloratuz, jatorrizko testuinguru historiko, sozial eta kulturalen kokatzeko.</p> <p>2. Testu filosofiko ezberdinak laburtuz eta konparatuz, euren barne-koherentzia ulertzea, agertzen diren termino filosofikoak ulertzeko eta ekarpen pertsonalekin testu-iruzkin kritiko bat egiteko.</p> <p>3. Jarrera kritikoa garatzea, kurtsoan zehar landu diren teoria eta korrante filosofikoak behar den moduan lotuz, mundu garaikideko errealitate eta pentsamenduak interpretatzeko eta hobeto ulertzeko.</p> <p>4. Ikasitako autoreen pentsamendua era egokian adierazi, euren ideia garrantzitsuenak ulertuz eta seinalatuz, norberaren ideiak argitasunez eta koherentziaz argudiatzeko.</p> <p>5. Ikuspegi kritikoaz jabetzea, historian zehar diskurtso filosofikoek egindako kontzeptualizazio baztertzailak eta diskriminatzaileak identifikatuz, giza eskubideetan oinarrituriko gizarte baten eraikuntza defendatzeko.</p>	<p>1. Testuetan agertzen diren arazo filosofikoak identifikatzea, horiek analizatuz eta baloratuz, jatorrizko testuinguru historiko, sozial eta kulturalen kokatzeko.</p> <p>1.1. Ea hautematen dituen testuak planteatzen dituen problemak eta ideiak.</p> <p>1.2. Ea kokatzen duen testua dagokion esparruan.</p> <p>1.3. Ea lotzen dituen testua eta haren ingurune historikoa, kulturala eta politikoa.</p> <p>1.4. Ea bere hitzez azaltzen duen testuaren esanahia.</p> <p>2. Testu filosofiko ezberdinak laburtuz eta konparatuz, euren barne-koherentzia ulertzea, agertzen diren termino filosofikoak ulertzeko eta ekarpen pertsonalekin testu-iruzkin kritiko bat egiteko.</p> <p>2.1. Ea definitzen dakien erabilitako termino filosofikoen esanahia.</p> <p>2.2. Ea laburtzen dituen testuaren ideia nagusiak.</p> <p>2.3. Ea egiten duen testuaren iruzkin kritikorik.</p> <p>2.4. Ea bere ideiak arrazoitzen dituen.</p> <p>3. Jarrera kritikoa garatzea, kurtsoan zehar landu diren teoria eta korrante filosofiko ezberdinak behar den moduan lotuz, mundu garaikideko errealitate eta pentsamenduak interpretatzeko eta hobeto ulertzeko.</p> <p>3.1. Ea deskribatzen dituen testuaren ezaugarri nagusiak.</p> <p>3.2. Ea ezartzen dituen autore eta teorien arteko antzekotasunak eta diferentziak.</p> <p>3.3. Ea baloratzen duen iraganeko teoria eta korrante filosofikoek egungo munduan duten eragina.</p> <p>4. Ikasitako autoreen pentsamendua era egokian adierazi, euren ideia garrantzitsuenak ulertuz eta seinalatuz, norberaren ideiak argitasunez eta koherentziaz argudiatzeko.</p> <p>4.1. Ea era argian eta koherentziaz adierazten dituen landutako arazo filosofikoak.</p> <p>4.2. Ea argudiaketan hurrengo elementuak bereizten dituen: Sarrera, garapena eta amaiera.</p> <p>4.3. Ea bere pentsamendua, autonomiaz, jarrera kritiko eta sortzaileaz adierazten duen.</p> <p>5. Ikuspegi kritikoaz jabetzea, historian zehar diskurtso filosofikoek egindako kontzeptualizazio baztertzailak eta diskriminatzaileak (androzentrismoa, etnozentrismoa, xenofobiak, etab.) identifikatuz, giza eskubideetan oinarrituriko gizarte baten eraikuntza defendatzeko.</p>



	<p>5.1. Ea identifikatzen dituen jarrera diskriminatzaileak izkutuz dituzten diskurtso filosofikoak.</p> <p>5.2. Ea ikuspegi kritikoz aztertzen dituen diskriminazio egoerak.</p> <p>5.3. Ea arbuiatzen dituen estereotipo edo aurriritzi diskriminatzaile eta baztertzailak.</p> <p>5.4. Ea giza eskubideak, gizarte eraikitzeke ereduak bezala balioesten dituen.</p>
--	---

EDUKIEN SEKUENTZIA

(denbora –tarteka; unitate didaktikoa, proiektua; ikaskuntza-nukleoa edo beste moduren batera antolatuta)

1. Ebaluazioa (32 saio)
 - Platon (*Errepublikak VII liburua*, 1-5; 13,14 atalak) 22 saio
 - Agustin Hiponakoa (*Bizitza Zoriontsuaz II*, 7-16 atalak) 10 saio
2. Ebaluazioa (32 saio)
 - Agustin Hiponakoa (*Bizitza Zoriontsuaz II*, 7-16 atalak) 10 saio
 - Emmanuel Kant (*Zer da ilustrazioa? Galderari erantzuna*) 22 saio
3. Ebaluazioa (32 saio)
 - Karl Marx (*Manifiesto Komunista*, lehenengo zatia) 18 saio
 - Ludwig Wittgenstein (*Etikaz hitzaldia*) 14 saio

METODOLOGIA

[edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

1. Metodologia gauzatzeko kontuan hartuko dira Filosofiaren Historiako Frogaren Koordinatzaileek emandako jarraibideak.
2. Beraz, unibertsitaterako sarbide frogak gainditzera fokatuta dago metodologia.
3. Oinarria: bost testu liburua dugu Ibaizabal argitaletxeak kaleratuak: programan agertzen diren autore bakoitzaren epigrafeak irakurriko dira, irakasleak beharrezko azalpenak emanez.
4. Irakaslearen azalpenak: blokeetako edukien atean dauden loturak azpimarratuko dira, horrela zenbait jardueraren bidez, edukien artean lotura-sare aberats bat dagoela ikusiko dute ikasleek
5. Horrela, autorea test-inguratzeaz eta bere pentsamendua azaltzeaz gain, ehu-k agindutako jatorrizko testuak irakurri eta azalduko dira, testu iruzkinak burutzeko. Metodologia honek testu iruzkinaren garrantzia kontuan hartzen du eta azken hau era egokian egin ahal izateko, ondoko hauek indartuko dira: laburpena, terminologia eta iritzi kritikoaren atala, besteak beste.
6. Bukatzeko eta lehen esan bezala, programaren epigrafeak jarraituz, autore bakoitza bere autore paraleloarekin erlazionatuko da (adib: Platon-Aristoteles) eta filosofiaren historiako beste pentsalari eta korrante adierazgarriekin ere bai.

EBALUAZIO TRESNAK

[ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]

Idatzizko proba objektiboa: banakakoak izango dira, haien bidez konprobatuko dugu ea ikasleak unitate didaktikoaren oinarriko ezagutzak, arrazoitzeko metodoak, prozedura jakin batzuen aplikazioan... ondo erantzuten duen.

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK

[ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]

Ebaluazioari dagokionez, Filosofiaren Historiako Frogaren Koordinatzaileek proposaturiko azterketa ereduak erabiliko dira eta azterketa eredu horietan agertzen diren eskakizunak, galdera-motak, galderen egiturak etab.



Eguneroko lana ikasgelan: aztertzen diren arloak honako hauek dira: interesa, motibazioa, lan ohiturak, arreta, parte-hartzea...

Etxean prestatu behar dituzten iruzkinak : ikasgelan landuko diren testuen iruzkina prestatzea (tesia eta hitzen definizioa), ulertzea eta iruzkin kritikoak egitea

errespetatuko dira.

- **idatzizko probak: %90** Idatzizko proba barruan bi atal bereiz ditzakegu: galdera teorikoak %45 eta testu iruzkin bat %45

- **Klaseko jarrera, interesa eta arreta: %5**

- **Irakasleak egindutako Testu iruzkinak egitea: %5**

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK: Honako hauek dira autore bakoitzaren ebaluatze-frogan, zuzenketa egiteko eta kalifikatzeko jarraituko diren irizpideak:

1. BLOKEA. DESKRIBATZAILEAK

1.1. Kasleak testuaren atal batzuk kopiatu besterik ez du egiten, laburpen gisa aurkeztuz (0,25p)

. Kasleak testuaren ideia nagusia ondo adierazten du, hitzez hitz kopiatu gabe, baina ez ditu jasotzen ideien multzoa ezta ideien arteko lotura (0,50p)

. Ideia nagusia ondo adierazita dago eta horrekin lotura duten ideiak aipatzen ditu. Halere, laburpenaren adierazpena edo egitura ez dira egokiak (0,75p)

. Kasleak testuaren laburpena egiten du, bertan jasotako ideiak eta horien arteko lotura errespetatzen ditu, ez du hitzez hitz errepikatzen eta argi eta zehatz adierazten du dena (1 p)

1.2.1 eta 1.2.2. Kasleak ondo deskribatzen du azpimarratutako kontzeptua, hitzaren definizio orokorra (0,1), egileak zertarako erabiltzen duen (0,3) eta hitz horren eraginez sortzen den problematika (0,1) azalduz.

1.3. Kasleak ez du hurrengo maila lortzen (0 p)

. Kasleak zenbait ideia garatzen ditu baina garapena arruntegia da edo euskarririk edota argibiderik gabekoa. Ez du azaltzen iritzi pertsonal egokirik (1p)

. Kasleak gai filosofikoa ulertzen duela frogatzen du, eta arretaz aztertu ditu ideiak eta argudioak garatzeko bi ikuspegi filosofiko. Adibideak egokiak dira eta badago iritzi pertsonal egokien zantzuren bat (2p)

. Kasleak testuan planteatzen den gaia eraginkortasunez ulertzen duela frogatzen du eta arretaz aztertzen ditu gaiarekiko bi ikuspuntu filosofiko, eztabaida kritikoa eginez. Adibideak egokiak dira eta iritzi pertsonala egokia da (3p)



2. BLOKEA. DESKRIBATZAILEAK

2.1 eta 2.2. Ikasleak ez du hurrengo maila lortzen (0p)

. Ikasleak autorearen edo testuinguru historiko-filosofikoko ideien aipamen partziala egiten du; eskasa da kontzeptu filosofikoen erabilera edo ideiak ez daude ondo ordenatuta (0,5p)

. Ikaslearen erantzunak hari egoki bati jarraitzen dio, azalpenak emateko orduan; kontzeptu filosofikoen erabilera eraginkorra; hala ere, ideia garrantzitsuen aipamen partzial soila egiten du (0,75p)

. Ikasleak ideia garrantzitsuenen aipamen partzial soila egiten du; eskasa da kontzeptu filosofikoen erabilera edo ideiak ez daude ondo ordenatuta (1p)

. Ideiak garrantzitsuenak aipatzen ditu eta bere erantzunak hari egoki bati jarraitzen dio. Kontzeptu filosofikoen erabilera eraginkorra da (1,5p)

2.3. Ikasleak ez du hurrengo maila lortzen (0p)

. Ideia garrantzitsuenen aipamen partzial soila egiten da eta eskasa da kontzeptu filosofikoen erabilera edo ideiak ez daude ondo ordenaturik (0,5p)

. Erantzunak hari egoki bati jarraitzen dio eta eraginkorra da kontzeptu filosofikoen erabilera. Hala ere, autorearen edo testuinguru historiko-filosofiko ideia garrantzitsuenen aipamen partzial soila egiten du (1p)ko

. Ideia garrantzitsuenen aipamen partzial soila, ideia horiek galderari erantzuteko aipagarriak izanik baina kontzeptu filosofikoen erabilera eskasa edo ideiak ez daude ondo ordenaturik (1,5p)

. Hari egokiari jarraitzen dio, kontzeptu filosofikoen erabilera oso eraginkorra da, ideia garrantzitsuak oso ondo azalduta daude (2p)

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak,

antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekuperazio-sistema...]

. Ikasle bakoitzak ikasturtean zehar suspenditutako atalak edo zatiak (goian azaldu bezala, bigarren mailan "autore"ka banatu ditugu aipatutako atal edo zati horiek) errekupera ditzake, horretarako froga jarriko zaio eta irakasleak egoki baderitza lan osagarriak agindu ahal ditu.

. Ebaluaketa batean 2 autore sartzen direnean, autore bakoitzaren azterketa egin ondoren, bien arteko bataz bestekoa egingo da; lehen adierazi bezala, batezbestekoak %90a balio izango du. Autore baten azterketa ez baldin badago gaindituta, ikasleak autore horren berreskurapena egin ahal izango du. Berreskurapena egin arte, ebaluazioko nota ez gai izango da (nahiz eta autore bat gaindituta eduki). Gainditu gabe dagoen autorea berreskuratu ezker, berriro aterako zaio batez bestekoa eta ebaluazio horretako azken nota gordeta geratuko da, hurrengo ebaluazioko buletinean agertuz.



. Maiatzeko ohiko deialdian eta ekaineko ez ohikoan, azterketak %100 balio izango du. Maiatzeko frogarako, ikasleak, kurtsuan zehar gainditu ez dituen autoreak ikasi beharko ditu eta horietariko baten azterketa egin beharko du. Dena gaindituz gero, azken nota guztien batezbestekoa izango da. Maiatzeko froga gainditu ezean, ikaslea autore guztiekin joango litzateke ez ohiko deialdira eta minimo azterketa bat prestatu beharko du (nahiz eta aurretik ebaluaketaren bat gaindituta izan). Kasu honetan, azken nota ezin izango da 5 baino altuagoa.

OHARRAK

Ekaineko frogari begira, honakoak dira eskatuko diren gutxienezko edukiak:

1. PLATON

- 1.1. Ideien teoria
- 1.2. Ezagutzaren teoria: zientzia eta iritzia. Dialektika
- 1.3. Ongiaren kontzeptua
- 1.4. Dualismo antropologikoa: gorputza eta arima. Arimaren teoria
- 1.5. Bertuteak eta hiri ideala

2. AGUSTIN HIPONAKOA

- 2.1. Fedea eta arrazoimena: ezagutzeko sinetsi
- 2.2. Zoriontasuna eta Jainkoa edukitzea
- 2.3. Jainkoaren existentzia eta ideia eredugarriak
- 2.4. Askatasuna eta gaitzaren arazoa
- 2.5. Historiaren Filosofia: Lurreko hiria eta Jainkoaren hiria

3. KANT

- 3.1. Ilustrazioaren ezaugarri nagusiak
- 3.2. Kant eta Ilustrazioa: *sapere aude*
- 3.3. Kant eta Ilustrazioa: arrazoimenaren erabilera publikoa eta erabilera pribatua
- 3.4. Kant eta Ilustrazioa: autonomia morala. *Caesar non est supra gramaticos*
- 3.5. Kant-en kritizismoa: Zer ezagut dezaket? Zer egin behar dut? Zer itxaron dezaket?

4. MARX

- 4.1. Erlijio-alienazioa
- 4.2. Ekonomia-alienazioa
- 4.3. Materialismo historikoa: egitura ekonomikoa eta superegitura
- 4.4. Materialismo historikoa: iraultza
- 4.5. Gizarte komunista

5. WITTGENSTEIN

- 5.1. *Tractatus*-a: mundua, pentsamendua eta lengoia
- 5.2. *Tractatus*-a: proposizio egiazkoak, proposizio zentzudunak eta pseudoproposizioak.
- 5.3. *Ikerketa Filosofikoak*: erabilera eta lengoai-jokoak
- 5.4. Filosofiaren funtzioa *Tractatus* eta *Ikerketa Filosofikoak*-en
- 5.5. Etika Wittgenstein-en pentsamenduan.